

ARRAUN THE WORLD

OLENTZEROREN ILOBA MUNDUAN



Leioa

UDALA-AYUNTAMIENTO
www.leioa.eu



WWW.ARRAUNTHEWORLD.COM

ARGAZKIMOKIA

DUELA HIRU URTE, GABONETAN ERE BAI,
SENEGALEKO UME BAT HURBILDU ZITZAION ETA
AFRIKAN ZUEN FAMILIARI OPARIA BIDALTZEKO
ESKATU ZION.

ZER PENTSATU EMAN ZION HORREK
OLENTZERORI... AGIAN, EUSKAL HERRIKO MUGETATIK
ATERA BEHAR ZUEN BERRI ONAK ETA OPARIAK
BANATZERA.

SAHARAZ HEGOALDEKO ETA LOIKO MAROKOAR
BATZUEKIN JARRI ZEN HARREMANETAN ETA
ENKARGUA HARTU ZIEN: EUREN JAIOTERRIKO
FAMILIEI BIDEO-MEZUAK ETA GUTUNAK ERAMATEA.

EUROPARANZKO BIDAIA TXALUPA HONDORATU
ZITZAIONEAN, BIZIA SALBATU ZION SURF OHOLA
OPARITU ZION GAZTEETARIKO BATEK.

ETA HORRELA JOAN ZEN, ZORROAREKIN, TXAPELA
ETA ABARKAK JANTZIRIK, ARRAUNA ETA PATINA
HARTUTA, ETA SURF TAULAZ EGINIKO BALTSA
APAL-APALAREKIN GIBRALTARREKO ITSASARTEA
ZEHARKATZERA. INOIZ ITSASARTEA GURUTZATU
DUTEN GAZTE GUZTIENTZAKO OLENTZEROREN
OMENALDIA.

ARRAUN THE WORLD

OLENTZEROREN ILOBA MUNDUAN




MADRILEKO ERRETIROKO URMAELA ZEHARKATU ZUEN. ETA HORREK,
INDARBERRITU EGIN ZUEN BERE HURRENGO ERRONKARI AURRE EGITEKO.



EGUN BATZUK GEROAGO...

ALGECIRAS 18:30




40C°, EGUN EGUZKITSUA ETA
SARTALDEKO HAIZE GOGORRA
IZANGO DUGU ARRATSALDE
ETA GAU OSOAN ZEHAR...

BAINA...
EROTUTA
ZAUDE, ALA?!!



URDURI NAGO...
BAINA POZIK!!





ETA HORRELA, OLENTZEROREN ILOBAK GIBRALTARREKO ITSASARTEA BAKARRIK ZEHARKATU ZUEN...



EUSKAL HERRITIK KANPORA...



HURRENGO EGUNEAN...

AZKENEAN....



AZKENEAN BAI...

PASAPORTEA MESEDEZ!!




MEEEEEEEEKKK




BENO... ESKERRAK NEKATZEN HASIA ZENEAN, ITSASONTZI HANDIAGO BATEK LAGUNDU ZUELA

BOGA BOGA



LORTU DUT!!

TANGER



BILJAR (ITSASOA)

TANGER

EL-RIF

MEKNES



REHLAEJLEN
(BIDAI ONA IZAN)



Aslam
(CARRAINA)



MIDELT



ETA HORRELA HASI ZUEN GURE
PROTAGONISTAK BERE BIDAIA...

TINGHIR

MELLAB

ERRABADIGHIA



TINGHIR





Doran' Dunit!!!!
(ARRAUNTHEWORLD)



TAIRI
♡



Chartjen
(sorte on)



HIRIAK ETA HERRIAK ZEHARKATUZ,
OLENTZEROREN ILOBAK AURRERUNTZ
SEGITZEN ZUEN. FAMILIA BERRIEN
BILA ZEBILEN, AGINDUTAKO
GUTUNAK ETA GORENTZIAK LEKU
BATETIK BESTERA UZTEN.
PASATZEN ZEN LURRALDE
BAKOITZETIK, BERE AZTARNA
UZTEN ZUEN HERRITARREN
ARTEAN...

DENBORA PASA, ETA AZKENEAN, ETXERA
BUELTATZEKO ORDUA IRITSI ZITZAION...



HORRA!!!
BEGIRA HOR
GOIAN!!



NON
EGON
ZARA?

AUPA!!
GAUZA ASKO KONTATU
BEHAR DIZKIZUET!!!

HARA!!
HEGAZ ETORRI
ZARA!!?



OLENTZEROREN
ILOBA
DA!!!



AZKENEAN OLENTZEROREN ILOBA ETXERA
BUELTATU ZEN, ETA GABON HORIETAN
BERE BIZIPIENEN ERAKUSKETA ANTOLATU
ZUEN LEIOAN, ARGAZKI ETA OROIMEN
MORDOXKAREKIN, BERAK JASOTAKO
HAUSNARKETAK BERTOKOEEKIN
ELKARBANATZEKO.
ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!!

LAMIAKO IKASTETXEA